

KONTAKTUA:
615790677

ERTZETIK

Inprobisazio musikatua: Bertsoak · Txalaparta · Bibolina · Kitarra



Partaideak:

BERTSOLARIAK
OIHANE PEREA
IZAR MENDIGUREN

MUSIKARIAK
AINTZIRA GOROSABEL
MIREN IÑAKE MIGUEL
MIKEL GOIKURIA

IRAUPENA
60-75 MINUTU

ERTZETIK

EMANALDIAREN LABURPENA

Bide, abiapuntu eta eremu desberdinetik datozen Arabako lau artistek osatutako taldea da Ertzetik; 2020/21 ikasturtean, pandemia betean sortutako proiektua hain zuzen, belaunaldien arteko uztarketa batean, gozamina helmuga. Hala, plazak eta plazera, biak gurutzatuko dira sormenaren ibilbidean, bertso eta musika saio inprobisatuen bidez.

Bizitzaren arlo askotako barne hustuketa, hausnarketa eta aitortza musikatuak eta zuzeneko umorea izango dira emanaldiaren kolore nagusiak. Bizitzako eremu anitzei buruzko kritikak ditu ardatz ikuskizunak. Ertzeko begirada izango du emanaldiak, ertzekoa geografiko eta soziologikoki, umore hegemonikotik ihes egingo duena.

Emanaldi freskoa eta diziplina anitzekoa da Ertzetik, sortzaileek gauza ezberdinak probatuko dituzte diziplinen arteko mugak hautsiz. Bat-batekotasuna, musika eta bertsoa Oihane Perea bertsolaria, Izar Mendiguren bertsolaria, Aintzira Gorosabel, Mikel Goikuria eta Miren Iñake Miguel musikarien eskutik.



ERTZETIK EMANALDIA ZURE HERRIAN IKUSI NAHI?

IKUSI FITXA TEKNIKOA ETA BESTE

Zure herriko plaza, taberna, elkarte edo aretoren batean ERTZETIK EMANALDIA antolatu nahi? Jarri Arabako Bertsozale Elkartearekin harremanetan ohiko bideen bitartez!

SOINUZTATU

BEHARREKOAK:

- 2 kitarra
- Bibolina
- Kajoia (Perkusioa)
- 2 mikrofono (eta mikro oin)
- Txalaparta

OHARRA:

Soinu ekipoa behar izanez gero, taldeak eraman lezake.

EMANALDIAREN ZATI BAT IKUSI NAHI?

2021-08-23 LAUDIO

labur.eus/ErtzetikFaktorian

2021-09-11 ZIGOITIA

labur.eus/ErtzetikZigoitia

